

# Nola sortu zerbait berria, baina zerbait gurea?

*Patxi Juaristi*<sup>1</sup>

## Atariko hitzak

Asko hitz egiten da globalizazioak, teknologia berriek eta, oro har, globalizazio prozesuarekin batera munduan gertatzen ari diren aldaketak guztiek gutxitutako hizkuntzetan, kulturetan eta, oro har, gizar-teetan izango duten eraginari buruz. Gure ohitura, bizimodu eta pentsatzeko moduen berregituraketa bultzatzen duen heinean, globa-

---

<sup>1</sup> Patxi Juaristi Larrinaga (Markina-Xemein, 1967) Soziologian Doktorea da (Deustuko Unibertsitatea, 1995). 1990-1993 urte bitartean ikerlariak trebatzeko Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saileko beka bat izan zuen. Tesia egiterakoan, ikerlari gisa aritu zen Galeseko Bangor Unibertsitatean (1992), Texas-eko A&M Unibertsitatean (1993) eta Nevada-Renoko Unibertsitatean (1994). 1998. urtean irakasle gonbidatua izan zen Idaho-ko Unibertsitatean. Euskal kultura, euskaldunen balio, euskara eta, orokorrean, hizkuntzei buruzko zenbait ikerketa, artikulu eta liburu argitaratu ditu. 2000. urtean Mikel Zarate Saia-kera Saria irabazi zuen. Bere azken liburuak dira *Salgai. Euskal kontsumo gizartea aztertzen* (Alberdania, 2005) eta *Words and Worlds. World Languages Review* (Multilingual Matters, 2005). 1993tik 2005era Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle izan da Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean. 2005eko azarotik Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate Zuzendaria da.

lizazioak errotik astintzen ditu orain arte baliagarriak izan diren paradigmatzak.

Artikulu honetan, globalizazio prozesuarekin bat eginda datozen zenbait aldaketak Euskal Herrian izango duten eragina aztertuko dut. Zehatzago esateko, teknologia berriek, demografiaren baitan gertatzen diren gorabeherak eta balio eta jarreraren arloan bizi ditugun aldaketek izango duten eraginaren inguruko gogoeta egingo dut.

## **1. Teknologia berriak eta gutxitutako kulturak eta hizkuntzak**

Asko laburbiltzen ari naizela onartuta ere, teknologia berriei buruz hitz egiten denean, aurkako ikuspuntu bi agertzen dira. Batzuen ustez, teknologia berriak gutxitutako hizkuntzen eta kulturen aurka agertzen dira. Beste batzuen iritziz, aldiz, teknologia berriek gutxitutako hizkuntzen alde egiten dute.

### *1.1. Teknologia berriak gutxitako hizkuntzen kalterako*

Hagège-k (2000) dioenez, hizkuntzak mehatxatzen dituzten faktoreak hiru multzotan sailkatu daitezke. Batetik, faktore fisikoak daude. Hau da, naturan gertatzen diren hondamendiek edo gizakiok eragindakoek hizkuntza baten hiltzen desagertzea edo gutxitzea ekar dezakete. Bigarrenik, faktore ekonomiko eta sozialak daude. Oro har, herrialde bat beste baten mende gelditu daiteke, arrazoi ekonomiko edo sozialengatik, eta, ostean, herri menderatuaren goi mailako gizarte klaseak, apurka-apurka, kanpotik etorritako hizkuntza eta kultura berenganatzen dituzte, euren jatorrizko hizkuntza eta kultura gutxietsiz. Hirugarrenik, faktore politikoak daude. Hauen ondorioz, herri, gizarte edo estatu bat beste batzuen gainean ezartzen da; indarrez zein bide zuhurragoak erabilita gerta daiteke hau.

Zenbaiten ustez, globalizazioa estuki loturik dago hizkuntzak mehatxatzen dituzten hiru faktore hauekin. Izan ere, globalizazioak,

eta berak bultzatzen dituen aldaketa guztiek, faktore fisiko, ekonomiko, sozial eta politiko bereziak sortzen ditu, eta pentsamendu bakarra, homogeneousasun kulturala eta kultura txikien eta hizkuntza gutxiagotuen desagertzea bultzatzen du (Virilio, 1997). Alegia, globalizazioak hiztunak desagerrarazten ditu, estatus desberdinetako herriak sortzen ditu, eta botere gutxiagoko herri, gizarte edo estatuak ahultzen ditu.

Ikus-entzunezko teknologia berrien mundu mailako hedapena eta hauen bidez igortzen diren eduki mediatikoak herrialde aberatsen eta, beraz, hizkuntza indartsuen eskuetan daudenez nagusiki (Hamelink, 1994), pentsamendu, kultura eta hizkuntza gutxi batzuk nagusituko dira munduan (Junyent 1993, Hale 1992, Krauss 1992, Crystal, 2000). Bizpahiru belaunalditan, munduan dagoen hizkuntza aniztasuna desagertu egingo da zenbait hizkuntza handiren mesedetan (gaztelera, errusiera, txinera eta ingelesa, kasu). Junyent-en (1999) hitzetan, *“Azkeneko bostehun urteetan, munduko hizkuntzen kopurua erdira jaitsi da. Décsyren estatistikaren arabera, 1970etik 1985era bitartean, hizkuntz kopurua 4.500etik 2.700era jaitsi zen; beraz, 1.800 hizkuntza desagertu ziren 15 urtean. Gaur egun, gutxi gorabehera 2.000 dira transmititzen ez diren hizkuntzak, eta joerak bere horretan jarraitzen badu, XXI. mendean gizateriaren hizkuntz ondarearen %90 desagertuko da”*.

### *1.2. Teknologia berriak hizkuntza gutxiagotuen mesederako*

Globalizazioarekiko jarrera negatiboa erakusten dutenen aurrean, beste batzuek diote globalizazioa hizkuntza gutxiagotuen mesederako izango dela. Hauen ustez, komunikaziorako teknologia berrien hedapena, bereziki Internet eta ikus-entzunezko komunikabideen hedapena, hizkuntza gutxiagotuak babesteko erabili ahal izango da, eta, beraz, globalizazioaren ondorioak gutxiagotutako kultura eta hizkuntzen mesedetan erabili ahal izango dira. Izan ere, teknologia

berrien laguntzarekin, kultur argitarapena merkeagoa eta errazagoa da, eta kultur produktuen hedakuntza handiagoa lortu daiteke (sarean sartutako materialak mundu osora iristen dira). Horrekin batera, teknologiek itzulpen sistema automatikoak hobea gotu eta merkatu egin dituzte, eta horrek kultura txikiei munduan egoteko aukera asko ematen die. Denborarekin, hizkuntzen arteko mugak arazo handirik gabe gañditu ahal izango dira, eta hizkuntza eta kultura txikiek ere nahi duten mezua nahi dutenean munduratu ahal izango dute. Area-go, komunikabide handiekin lehiatzeko aukera izango dute. Ez dugu ahaztu behar azken bi mendeetan Hollywood-en sortzen den bezalako industria kultural homogeneizatzaileak asko hedatu diren arren, oraindik ere komunikabide eta produktu kultural independenteek arrakasta izaten jarraitzen dutela munduan zehar (Miége 2000).

Azkenik, aipatzekoa da, Manuel Castells-en ustez (1996-1997), globalizazioak ez dituela identitate kolektiboak desagertuko, hain zuzen ere, tokian tokiko identitateak indartzen ari direlako. Hau da, Castellsen (1996-1997) arabera, globalizazioak eta berari lotutako aldaketa bortitzek nora ezeko egoera ekarri digute, eta gero eta arazo gehiago ditugu gure inguruan gertatzen ari diren eraldaketa, istilu eta gorabehera guztiak behar bezala ulertzeko. Ondorioz, eza gutzen ditugun eta, neurri batean behintzat, kontrola ditzakegun eremuetarako itzulia egiten hasi gara; eta horrek berrindartu egiten du hurbileko taldeen (lagunak, familia, herri nortasuna, erlijioa...) eta tokian tokiko identitateen beharra. Kulturak estandarizatu eta homogeneizatzeko joera orokorrekin *tribalizazio* berriak eta hurbilean dugunarekiko atxikimendu handiagoak ekarriko dituzte (Maffesoli, 1997). Eta horrekin batera, baita hizkuntza eta kultura gutxiagotuekiko atxikimendu handiagoa ere. Globalizazioa nahitaz gertatzen ari den prozesua bada ere, ez da herrien eta hizkuntzen aurka joango. Gutxitutako kultura eta hizkuntzak gordetzen eta garatzen lagunduko duten joerak bultzatuko ditu, identitate kolektiboak sendotuz.

### *1.3. Nola dago euskara teknologia berriei dagokionez?*

Euskarak eta euskal kulturak badauzkate alde sendo batzuk globalizazioaren eragin ezkorrei aurre egiteko. Alde batetik, kontuan izan behar da azken urteotan ugaritu egin direla euskaraz aritzen diren irrati eta telebistak. Gainera, hauek guztiek gero eta ikusle eta entzule gehiago dute<sup>2</sup>.

Euskara globalizazioari aurre egiteko prestatzen ari den beste adibide garrantzitsu bat da, nire ustez, aurrerapen ugari egin direla euskararen sintaxia automatizatzen<sup>3</sup>. Horrek euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzulpen automatikoak egiteko aukera emango du, baita euskarazko produktuen hedakuntza erraztu ere.

Internet-i dagokionez, kontuan izan behar da euskarazko web orriak asko ugaritu direla.

Azkenik, aipatzekoa da euskal kultura eta euskara lehen ere gaztelania eta frantsesa bezalako hizkuntza handien ondoan bizitzen egon direla eta, nolabait esateko, maila txikiagoko globalizazio prozesuetara ohiturik daudela. Josu Amezagak (2000) aspaldi zioen bezala: *“...esan dezagun Euskal Herrian globalizazioa lehenagotik ezagutu dugula: izan ere, zoritxarrez azken mendeotan ez dugu inoiz komuni-*

---

<sup>2</sup> Aipatzekoa da, 2006ko Donostiako Zinemaldiaren barruan estreinatu zen *Kutsidazu bidea*, *Isabel* filma 29.000 lagun inguruk ikusi zutela estreinatu eta aste gutxira: 5.375 ikusle hurbildu ziren euskarazko filma ikustera Gipuzkoako hiriburuan. Bilbon 2.000 ikusle hurbildu ziren filma ikustera, Gasteizen 1.550 eta Iruñean 650.

<sup>3</sup> Kontuan izan itzulpen automatikoak egingo dituen sistema garatzen ari dela Eleka enpresa. Zehatzago esateko, Ingeniaritza Linguistikoa lantzen duen enpresa honek kode irekiko eta banaketa libreko sistema garatzen dihardu. Sistema berriak testuak nahiz web guneak gaztelaniatik euskarara, galizieratik katalanera eta alderantziz itzuliko ditu. Honenbestez, Estatuko lau hizkuntza ofizialak kontuan hartuko dituen lehenengo sistema izango da Eleka enpresaren hau. Euskal Herriko Unibertsitateko IXA taldearen eta Elhuyar Fundazioaren laguntza du Elekak.

*kazio esparru propiorik eduki euskaldunok, kanpotik etorritako hedabide eta mezuak gure egunerokotasunean txertatuta egon dira. Frantzia eta Espainia mailako 'globalizazioan' urtuta egon gara, eta oraingoan 'globala' kontzeptuaren adiera maila da aldatzen zaiguna. Agian, orain arteko eskarmentuak abantailaren bat emango digu datozen egoerei aurre egiteko. Horrekin batera, kontuan hartu behar dugu globalizazioaren diskurtsoak batzuetan ezkututzen duen errealitate bat: ekonomia-aren mundializazioak ez ditu identitate nazional eta lokalak desagerrarazten (ikus bestela Europako mugimendu nazionalisten berpizkundea); areago, zenbait pentsalariren arabera, identitateok sendotu egiten dira defentsa mekanismo gisa”.*

Honek guztiak nolabaiteko baikortasunera eramaten bagaitu ere, begitantzen zait euskarak eta euskal kulturak ahultasun asko dituztela aro globalean bizitzen jarraitzeko.

Alde batetik, kontuan hartu behar da Euskal Herriko biztanle gehienek ez dakitela euskaraz. Gainera, 2001. urtetik 2006ra euskararen erabilera ez da asko hazi<sup>4</sup>, eta txarragoa dena, euskaldunen artean gero eta gutxiago dira etxean euskaraz hitz egiten dutenak<sup>5</sup>. Horrekin batera, ezin da ahantzi 2005. urtean Eusko Jaurlaritzako Hezikuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak eman zituen datuen arabera, D ereduan ikasten zuten ikasleen %68k ez zutela gainditzen 16 urte-

---

<sup>4</sup> 2006an egin zen Euskararen Kale Erabileraren azterketaren arabera, Euskal Herrian, bere osotasunean hartuta, euskararen erabilerak gora egin du 2001etik 2006ra (%13,5etik %14,2ra), baina Bizkaian, Iparraldean bezala, erabilerak behe-rako bidea hartu du (%11tik %10,4ra).

<sup>5</sup> 1991. urtean, EAeko biztanleriaren %13,8k erabiltzen zuten euskara etxean eta 2001ean %13,6k. Alegia, nahiz eta 1991. urtetik 2001era euskaldunen kopurua handitu egin den (%tik %era), etxean euskaraz hitz egiten dutenen ehuneko ia ez da aldatu. Etxean gaztelania eta euskara, bi hizkuntzak, erabiltzen dituztenen kopurua ere ez da aldatu 1991. urtetik. Hain zuzen ere, 1991. urtean biztanleriaren %8,06k hitz egiten zuten euskaraz eta erdaraz etxean eta 2001. urtean %8,41ek.

rekin beharrezkoa den euskararen ezagutza maila. Hau da, asko dira eskolaren bidez euskaraz hitz egiten dutenak, baina baita D eredutik euskaraz hitz egiten behar bezala jakin gabe ateratzen direnak ere.

Honekin batera, kontuan hartu behar da euskal kulturaren inguruan dauden ikus-entzunezko komunikabide askok baliabide ahulegiak dituztela euskarari eta euskal kulturari behar bezalako indarra eta maila emateko. Besteak beste, euskaraz jarduten duten herri telebista, irrati eta aldizkari askok diru arazo larriak eta baliabide eskasia dute.

Euskarazko zineak ere hutsune nabarmenak ditu. Ekoizpenari dago-kionez, oso film gutxi egiten dira euskaraz eta, bestalde, euskal zinegi-leek erdaraz egiten dituzten filmak kanpoko etxeek ekoiztuta daude, ia gehienetan. Filmen bikoizketa aztertzen badugu, hutsunea areagotu egiten da. Euskal Telebistaren inguruan itzulpen industria bat sortu bazen ere, honek ez du zine areto komertzialetan inolako eraginik izan. Euskal Herriko zenbait hiriburutan saiakera batzuk egin badira ere, gaur-gaurkoz, oso gutxi dira euskarazko pelikulak ematen dituzten zine aretoak. Eta hau arazo larria da euskal kulturarentzat zein euskararentzat. Izan ere, kontuan izan behar da mundu globalizatu honetan ikus-entzunezko produktuek garrantzi izugarria hartu dutela. Zentzu honetan, nolabaiteko zine industria propioa lortzen ez badugu, euskal kultura eta euskara are eta egoera ahulagoan gelditzea arriskua dago.

Azkenik, onartu egin behar da ikus-entzunezko euskal merkatua txikia izateaz gain, behar bezala egituratu gabe dagoela oraindik. Euskal Herriko ikus-entzunezko komunikabideen arteko harremanak urriak dira, eta plan orokorrik gabe ari dira lanean.

## **2. Aldaketa demografikoak Euskal Herrian**

Gure inguruko beste herri askotan bezala, Euskal Herrian ere aldaketa demografiko garrantzitsuak gertatzen ari dira. Modernitateari eta globalizazio prozesuei estuki loturik dauden aldaketak dira.

Alde batetik, kontuan hartu behar da jaiotze tasa txikiak ditugula, eta, aldiz, zaharren kopurua handitzen ari dela etengabe. Bestetik, aipatzekoa da azken urteotan hirietan pilatzeko joera izugarria egon dela. Azkenik, oso adierazgarria da gure artean bizi diren etorkinen kopurua handitzen ari dela, eta gero eta aniztasun etniko eta kultural handiagoa duen gizartean bizi garela. Zer-nolako eragina izango dute aldaketa demografiko hauek guztiek euskal kulturari eta euskarari?

### *2.1. Aldaketa demografikoak gutxitutako hizkuntzen kalterako*

Batzuen ustez, gertatzen ari diren aldaketa demografiko hauek guztiak euskal kultura eta euskararen kalterako izango dira. Izan ere, zaharrak ugaltzearekin eta gazteak gutxitzearekin, euskal gizarteak eraginkortasuna eta ekintza gaitasuna galduko du. Gazteak gutxitzen doazen neurrian (EUSTAT-en datuen arabera, 2014. urtera arte 18 urte dituztenen adin taldea gutxitzen joango da), gero eta zailagoa izango da kultur arloko ekintzak, euskararen aldeko ekimenak edota edozein motatako kultur elkarteak sortu eta antolatzea, batez ere herri txikietan. Alegia, gazterik gabe gizarte sareak ahuldu egingo dira, eta horrekin batera, baita gure hizkuntza eta kultura ere. Ezin da ahantzi, zenbaiten ustez, gure hizkuntza eta kultura gizarte sare aberatsa dugulako gorde direla; beraz, sare honen eraginkortasuna ahultzen doan neurri berean ahulduko dira euskal kultura eta euskara.

Umeak gutxitzearen eta zaharren kopurua handitzearen ondorio hauek guztiak are eta indartsuago igarriko dira udalerrri txikietan. Horrek, epe luzean, herri hauen ahultzea ekarriko du, eta, ondorioz, baita euskararen ahultzea ere. Kontuan izan behar da herri txikiak direla euskara eta euskal kultura hobekien gorde dituztenak.

Hirietan pilatzeko joerak ere eragin negatiboa izan dezake euskarari eta euskal kulturari. Izan ere, nahiz eta gaur egun hirietan dauden euskaldun kopururik handienak, euskara galdu egiten da erdararen

itsasoan. Horren adibide argia da Bilbon gertatzen dena: euskara ondo hitz egiten dutenen kopurua handitzen badago ere, euskararen erabilerak ez du gora egin azken urteotan<sup>6</sup> (Juaristi, 2007).

Azkenik, aipatzekoa da azken urteotan etorkin asko etorri dela bizitzera Euskal Herrira, eta horrek eragin zuzenak dituela gure hizkuntza eta kulturaren.

Etorkinen etorrerak euskararentzako eta euskal kulturarentzako izango dituen ondorioei buruz ezer esan aurretik, argi utzi nahi nuke, nire ustez, euskararen benetako arazoa bizi duen diglosia egoera dela eta ez etorkinen etorrera. Zentzu honetan, bat egiten dut Julen Arexolaleibaren hitz hauekin: “Uste dut makalenari errua botatzea jarraera xenofoboa dela. Nik irakasleen artean sumatzen dudanean, eta idatziz ekar ditzaket kasuak, ‘bi etorkin etorri dira gure eskolara eta orain arteko hizkuntza jarrera aldatu egin dute’. Ba oso hizkuntza jarrera egokirik ez zen egongo etxe horretan! Pentsatzen dut nik: izan ere, bi etortzea nahikoa izan bada zegoen guztia hankaz gora jartzeko, askorik ez zegoen seinale . Ala?” (Arexolaleiba, 2004: 105).

---

<sup>6</sup> Bizkai osoan bezala, Bilbon ere asko handitu da euskaldunen kopurua. Eustatek emandako datuen arabera, 2001. urtean 53.000 euskaldun bizi ziren Bizkaiko hiriburuan, 1981ean baino 29.072 euskaldun gehiago. Alegia, bi urte eta gehiagoko bilbotarren %6,25 ziren euskaldunak 1981ean eta %15,49 2001ean. Hala eta guztiz ere, argi dago Bilbo Bizkaia bere osoan hartuta baino erdaldunagoa dela. Izan ere, 2001. urtean bizkaitarren %24,96 ziren euskaldunak eta bilbotarren %15,49.

Nahiz eta zenbaki absolutuetan Bilbon bizi den euskaldun kopurua handia den (53.000 euskaldun inguru), Bizkai osoan baino gutxiago hitz egiten da euskaraz (2006an egindako azterketen arabera, bizkaitarren %10,4k euskaraz hitz egiten dute kalean eta bilbotarren % 4,3k). Euskaldunen ehunekoa Bizkai osoan baino txikiagoa den heinean (%15,49 Bilbon eta %24,96 Bizkaian), gutxiago dira euskaraz harremanak egiteko edota euskara erabiltzeko aukerak. Zenbaki absolutuetan euskaraz dakitenen kopurua handia bada ere, Bilboko euskaldunak galdu egiten dira erdararen itsaso zabalean. Hala ere, Bilbo, Gasteiz (%4) eta Iruñea (%2,8) baino euskaldunagoa da; hori bai!, Donostia (%18,2) baino erdaldunagoa da.

Makalenari errua bota gabe, datu batzuen arabera, pentsa daiteke etorkinen etorrerak ahuldu egin ditzakeela euskara eta euskal kultura. Izan ere, badirudi etorkinen seme-alaba gehienak erdarazko ereduetan matrikulatzen direla (EAE-n A ereduari eta Nafarroan A eta G ereduari). Nafarroan, 2003-2004ko ikasturtean, 6.745 ikasle atzeritar zeuden Nafarroan, eta haietako 20 besterik ez zeuden A eta D ereduari. Gainerakoek G ereduari eman zuten izena. Jesús Manuel Septien-ek bere *Mugarik gabeko eskola* liburuan (2006) adierazten duen bezala, Arabara etorri diren etorkinen seme-alaba gehienak A ereduari eskola publikoari matrikulatzen dira. 2004-2005 ikasturteko datuen arabera, Haur eta Lehen Hezkuntza ikasten ari ziren etorkinen %82k A ereduari ikasten zuten. Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoan, etorkinen %79,3 zeuden erdarazko hezkuntza ereduari. Orokorrean, EAE-n, ikasle etorkinen %65 A ereduari eskolatzen dira (Etxeberria, 2004: 61).

## 2.2. Aldaketa demografikoek eragin gutxi izango dute euskal kultura eta euskarari

Aurreko faktoreen eragin negatiboa ukatu gabe, beste faktore batzuen arabera, aldaketa demografikoek eragin negatibo gutxi izango dute euskal kulturari eta euskarari.

Zaharrak ugaltu eta gazteak gutxitzen ari badira ere, ezin da ahantzi euskarazko ereduari matrikulatzeko joera indartsu dagoela, batez ere Hego Euskal Herrian. Jarrera politiko edo modetatik kanpo dago umeak euskarazko hezkuntza ereduari matrikulatzea. Alegia, iraganarekin alderatuta, ume gutxiago dago, baina daudenak eredu euskaldunari matrikulatzen dira. Are gehiago, behar bezalako informazioa ematen bazaie, pentsatzekoa da etorkinen umeak ere eredu horietan matrikulatuko direla, eta D ereduak nagusi izaten jarraituko duela. Izan ere, 2005eko otsailean, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Unesco Etxeak elkarlanean antolatutako Hizkuntzak eta

Immigrazioa jardunaldien barruan, etorkinek argi adierazi zuten euskara ikasteak hemengo gizartean hobeto barneratzeko aukera eskaintzen duela. Alegia, etorkinek onartu egiten dute euskarak integrazio-rako ateak zabaltzen dituela.

Azpitarratzekoa ere bada euskal kultura eta euskarak lehen ere bakarrik gazteleraz eta frantsesez hitz egiten zuen jende pila hartu zuela 50eko eta 60ko hamarkadan, eta, nolabait esateko, aldaketa demografiko bortitzetara ohiturik daudela. Orain ditugun baino baliabide gutxiagorekin, euskara bizirik gordetzeko gai izan gara. Euskal kulturak eta euskarak aspaldi hartu zuten etorkinen etorreraren eta aldaketa demografiko bortitzen aurkako txertoa, eta prest dago etorkin uholde berriei aurre egiteko. Julen Arexolaleibak (2004:111) dioen bezala, “Europaz kanpoko etorkinena, izan ere, orain arte ikusi dugun pelikula baten hurrengo kapitulua da”.

### **3. Balioen aldaketa gutxitutako hizkuntzak eragiten**

Giza talde edo norbanakoen balioek, jarrerak eta pentsatzeko moduek ere eragin zuzena dute gutxitutako hizkuntzetan eta kulturetan. Balioek, jarrerak eta pentsatzeko moduek portaerak eta arau sistemak baldintzatzen dituzten oinarritzko ideia edo sinesmenak direnez, gizartearen izaera moldatzen dute.

Familia, lagunak eta lana dira Hego Euskal Herriko biztanleen balioen hierarkiaren lehen hiru arlo garrantzitsuenak; horien ostean, aisialdia eta erlijioa daude. Politika seigarren tokian agertzen da. Nola eragiten die balio hierarkia honek gure hizkuntzari eta kulturari?

#### *3.1. Balioen aldaketa gutxitutako hizkuntzen kalterako*

Lehen aipatu bezala, globalizazioak nora ezeko egoera ekarri digu, eta, ondorioz, gure mundu nahasi hau hobeto ulertzeko familiari, lagunei eta, oro har, ingurune hurbilean ditugunei begira jarri gara.

Egia esan, inoiz ez bezalako garrantzia hartu dute familiak, lagunek eta, oro har, arlo pribatuak.

Dena dela, datuek erakusten dute inoiz baino modu bakartiagoan eta indibidualistagoan bizi garela. Masifikazio egoeran bizi gara –jende pila bizi den etxeak, jende askorentzako garraio zerbitzuak, nahi adina bisitari dituzten baliabide turistikoak, milaka lagunek erosketak egiten dituzten merkataritza zentroak...–, baina, modu berean, giza harremanak zailak dira, eta gero eta gizarte bakartiagoetan bizi gara<sup>7</sup>.

Nola eragiten die indibidualismorako joera honek gure hizkuntzari eta kulturari? Askok diote euskara eta euskal kultura mendeetan gordetzearen arrazoia izan dela gure artean harreman sare sendoak eraikitzeko gai izan garela. Familia, auzo eta herri mailan era askotako gizarte-sareak sortu ditugu (auzo elkarteak, kofradiak, unibertsitateak, partzuergoak, aseguru elkarteak...), eta horrek XXI. mendera arte heltzea ahalbidetu du. Beraz, pentsatzekoa da indibidualismoa hedatzen bada eta orain arte bizirik egon diren gizarte sareak ahultzen badira, euskara eta euskal kultura ere ahuldu egingo direla.

Lana eta aisialdia hirugarren eta laugarren postuetan agertzen dira euskaldunen balioen hierarkian. Hala ere, euskarak ez du lortu lan munduan izan beharko lukeen garrantzirik, ezta aisialdian ere.

LanHitz programaren baitan Eusko Jaurlaritzak egin dituen ikerketen arabera, EAeko 100 langiletik gorako enpresetan euskara gutxi erabiltzen da, salbuespen oso zehatz batzuetan izan ezik. Gauza bera

---

<sup>7</sup> Europako biztanleen %25 bakardadean bizi dira; eta proportzio hori handiagoa da Iparraldeko herrialdeetan. Danimarkan, adibidez, biztanleen %35 bakarka bizi dira, eta Alemanian eta Holandan %30ek hartu dute erabaki hori. Gizabanako gehien bizi diren etxeak Espainiakoak eta Portugalgoak dira. Herrialde bi horietan, biztanleriaren %12 bakardadean bizi dira. Edozein modutan, gomutan partzekoa da Gasteizen etxean %20an lagun bakarra bizi dela, eta etxean %45ean pertsona bat edo bi bizi direla.

gertatzen da EAeko jatetxe eta taberna gehienetan<sup>8</sup>. EAeko txikizkako saltokietan ere joera bera dago, hain zuzen ere, hiru dendatik bitan, %64tan, inork ez dakielako euskaraz.

Historian zehar erlijioak eta erlijio gizonak izugarritzko eragina izan dute euskal herritarren bizitzan, eta, ondorioz, baita euskal kultura eta euskararen ere. “Administrazioak bete ez duen papera Elizak bete du lurralde batzuetan euskararen gizarte-erabileran, batez ere XVIII eta XIX. mendeetan. Euskararen gizartratze hori herri euskaldunetan egin du batez ere, predikuen bidez eta dotrina irakatsiaz” (Arejita, Manterola eta Oar-Arteta, 2007:52). Eragin hau oso garrantzitsua izan da gaur egunera arte.

Dena dela, ukazina da Euskal Herrian sekularizazio prozesu izugarria gertatu dela (Javier Elzoren zuzendaritzapean (2002), euskaldunon balioei buruz 1999an egin zen ikerketaren arabera, Hego Euskal Herriko biztanleriaren %29,2 baino ez doa astero elizara). Gaur egun erlijioa bosgarren posizioan agertzen da euskaldunon balioen hierarkian.

Batzuen ustez, erlijiotik aldentze honek eragin negatiboa izango du euskal kulturaren eta euskararen epe ertain eta luzean. Zehatzago esateko, batzuen ustez erlijio gizonak eta hauen inguruan sortu diren sareak desagertzen badira, euskara eta euskal kultura oso ahulduta geldituko dira, hain zuzen ere, euskararen gizarte-erabilera ahulduko delako.

Azkenik, gure balioen hierarkiaren azken posizioan politika dago. Komunikabideetan eta, orokorki, Euskal Herriko kaleetan duen agerpena gogoan hartuta, politikak gure bizitzetan izugarritzko garrantzia

---

<sup>8</sup> Jatetxe eta tabernen %9an erabiltzen da bakarrik euskara. Establezimenduen ia erdiek ez dute euskara inoiz erabiltzen, eta bostetik lauk ez dute inoiz erabiltzen edo oso gutxitan erabiltzen dute. Horietan %60k euskaraz ez dakitela kontuan hartzen badugu, datu hauek ez dira batere harritzekoak.

duela pentsa badaiteke ere, seigarren posizioa baino ez du gure balioen hierarkian. Erljioaren atzetik dago politika gure balio hierarkian. Hala ere, gizarte politizatua da gurea. Politikak eragin nabarmena du gure hartu-emanetan, ohituretan eta baita portaeretan ere. Horrela, bada, ideologia politikoak zehazten digu, sarri askotan, euskarari buruz edo euskal kulturari buruz izan behar dugun jarrera. Alderdi, plataforma eta mugimendu politikoek behineneko eragina dute euren militanteen eta jarraitzaileen bizimoduan, eta, beraz, euskarari eta euskal kulturari buruzko jarreretan.

Dena dela, alderdi politikoen artean eztabaida handia dago etorkizunerako nahi dugun hizkuntza ereduaren inguruan: Euskal Herri euskaldun elebakarra, elebiduna edo eleanitza nahi dugu. Hots, arazoak ditugu gizarte kohesioarentzako hain garrantzitsua den hizkuntzaren auzia konpontzeko. Gehiago esango dut, sarritan iruditzen zait aurrera egiteko beharrezkoa den adostasun politiko minimorik ere ez daukagula gai honen inguruan, eta hori arazo larria izan daiteke gure herriaren etorkizunerako.

### *3.2. Gure balio hierarkia euskararen eta euskal kulturaren mesederako*

Gure gizartean, badaude euskara eta euskal kultura bultzatzeko hainbat balio, jarrera eta pentsatzeko modu.

Euskal Herrian egin zen hirugarren soziolinguistika inkestaren (2001) arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren %50 euskara ikasteko eta erabiltzeko neurriak hartzearen alde daude (ahantzi gabe sei pertsonatik batek (%17) euskara sustatzearen aldeko neurriak hartzearen kontrako jarrera azaltzen duela)<sup>9</sup>. Aipatzekoa ere

---

<sup>9</sup> Araban, euskara ikastea eta erabiltzea sustatzearen aldeko herritarrak populazio osoaren %34 dira, Bizkaian %48 dira eta %62 Gipuzkoan. Azken lurralde honetan, kontrako jarrera dutenak %10 dira; Bizkaian, %17 dira; eta Araban, laurden bat baino pixka bat gehiago (%28).

bada, EAEn euskararen transmisioa ia erabatekoa dela guraso biak euskaldunak direnean. Nahiz eta euren artean gazteleraz hitz egiten duten bikote euskaldun asko egon, seme-alabei euskaraz hitz egiteko joera dute. Areago, euskara gero eta gehiago transmititzen da bietako batek bakarrik dakienean, nahiz eta kasu horietan euskara eta gaztelania, biak batera, transmititzen diren.

Euskarazko ereduan matrikulatzeko joera indartsu dago, batez ere EAEn. Jarrera politiko edo modetatik kanpo dago umeak D ereduan matrikulatzea, eta horrek, nire ustez, eragin zuzena dauka euskaldun kopurua handitzerakoan. Espainiako Hezkuntza Ministerioaren Marques de Lozoya antropologia saria irabazi zuen Jone Miren Hernandezek Lasarte-Oria herriari buruz hitz egiterakoan zioen bezala, (Berria, 2005-2-17): “Hezkuntzaren alorrean, denbora gutxian gauzak asko aldatu dira. Nahiz eta oraindik era askotako erdaldunak dau den herrian, etorkinek natural onartu dute euren seme-alabak eta ilobak D ereduan sartzea. D eredia da nagusi, eta hezkuntza esparruak askori eman die euskara ikasteko aukera”. Lasarte-Oriari buruz esandako hauek EAE osoari buruz ere esan ditzakegu.

Nafarroari dagokionez, nafarren herena baino gehiago (%37) euskara sustatzearen aurka dago eta laurdena baino gehiago (%29) alde. Dena dela, Miquel Cros i Lladós-ek bere *Recuperación del Euskera en Navarra* liburuan aurkezten dituen datuen arabera, ez dago zalantzarik euskara berreskuratzen ari dela Nafarroan. Franco hil osteko urteak izan ziren txarrenak euskararen osasunari dagokionez, baina 1985. urtetik aurrera gauzak aldatzen hasi ziren, eta euskaraz hitz egiteko edonolako gaitasuna dutenak (Miquel Cros i Lladós-en hitzetan “vascofonos”) zein euskaraz ondo hitz egiteko gai direnak (euskaldunak) ugaritzen joan dira. Eskualde ia guztietan, euskarak progresio geometrikoa erakusten du. Euskararen indartze hau azaltzerakoan, Miquel Gros i Lladós-ek dio “Vascofonoen” zein euskaldunen kopuruaren hazkundera eskolari esker gertatu dela nagusiki, baina baita hainbat

nafarren borondate eta euskararekiko duten jarrera baikorrari esker ere. Bere ustez, "...las comarcas que fueron total o parcialmente euskaldunes hasta los siglos XVI y XVII muestran un porcentaje, en la vascofonía infantil, que se sitúa entre el 50 y el 30% de vascófonos. Son datos concluyentes. Dichas comarcas presentaban en 1986 unos porcentajes de vascofonía pírricos, y al estar situadas en zona no vascófona, no ha habido ninguna promoción social de carácter significativo, ni del euskera ni de su aprendizaje. Cabe atribuir, por tanto, solamente a la voluntad de su tejido social, el considerable nivel de revasquización producido, y, sin duda, la herencia histórica que el euskera dejó en aquellas tierras ha debido jugar un papel en dicha recuperación".

Iparraldeari dagokionez, kontuan hartu behar da bakarrik biztanleriaren %10k dutela beren burua euskal herritartzat. Iparraldeko biztanleen erdiek baino gehiagok (%54) euskal herritartzat eta frantsesetzat daukate euren burua eta herenak (%32) frantsesetzat soilik. Dena dela, egiazko euskal herritar izateko euskaraz jakin behar den galdeztzen denean, biztanleen erdiek (%53k) baietz erantzuten dute. Bestalde, %46k ontzat jotzen dute "haur guztiek euskara ikastea ezinbestekoa izatea". Herri-administrazioa euskalduntzeari dagokionez, Iparraldeko biztanleen erdiek (%51k) uste dute "herri administrazioan lan egiteko euskaraz jakin behar dela". Proportzio bera da (%50) "irradi eta telebista guztiek euskarazko askoz saio gehiago egin behar ko lituzketela" iritzikoa.

## IPARRALDEA

Arazoak arazo, ukaezina da, oro har, euskararekiko jarrera baikorrrak agertzen direla, eta, zentzu honetan, euskarak orain dela urte batzuk baino egoera hobea duela (Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesta, 1991, 1996, 2001).

#### **4. Nola sortu zerbait berria baina zerbait gurea?**

Euskararen alde azken urteotan martxan jarri diren egitasmo eta planen balioa ukatu gabe, nire ustez, ezinbestekoa da erabaki estrategikoak hartzea, egitasmo zehatzak martxan jartzea aurkeztu ditugun aldaketa eta eragin negatibo guztiek euskal kultura eta euskararen ahal den eragin negatibo gutxien izan dezaten. Hona hemen proposamen batzuk:

1. Alde batetik, kontuan hartu behar da Euskal Herriko biztanle gehienek ez dakitela euskaraz. Gainera, euskararen egoera ez da bat ere ona erabilerari dagokionez. Azterketek erakusten dutenaren arabera, gutxiengoa dira euskara eguneroko harremanetan erabiltzen dutenak. 2006. urtean egin zen euskararen kale erabileraren neurketaren arabera (*Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 64. zenbakia), Euskal Herriko zazpi biztanletik batek (%13,5) baino ez du kalean euskara erabiltzen<sup>10</sup>. Horrekin batera, ezin da ahantzi 2005. urtean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak eman zituen datuen arabera, D ereduan ikasten zuten ikasleen %68k ez zutela gainditzen 16 urterekin beharrezkoa den euskararen ezagutza maila. Hau da, asko dira eskolaren bidez euskaraz hitz egiten dutenak, baina baita D eredutik euskaraz hitz egiten behar bezala jakin gabe ateratzen direnak ere. Beraz, ezinbestekoa da euskararen ezagutza eta erabilera bermatuko duten ekimenak martxan jartzea. Batez ere, lan munduan eta aisialdiko ekimenetan.

Elebidun gehienak (%66,3) hirietan bizi direla kontuan hartzen badugu, ezinbestekoa da hiriburuetan eta errepide sare nagusietan

---

<sup>10</sup> Hala ere, desberdintasunak daude Euskal Herriko herrialdeen artean. Gutxi gorabehera hamar bizkaitarretik batek (%10,4) hitz egiten du euskaraz kalean. Zentzu honetan, Euskal Herriko herrialdeen artean, Bizkaia tarteko egoeran dago euskararen erabilerari dagokionez; izan ere, bizkaitarrak gipuzkoarrak (%32,7) baino erdaldunagoak dira, baina arabarrak (%4,7), nafarrak (%6,6) eta iparraldekoak (%4,6) baino euskaldunagoak.

lerratzen diren 10.000 biztanletik gorako udaletan euskaraz hitz egiteko edota euskara sustatzeko ekimenak bultzatzea. Euskaraz aritzeko esparru liberatuak eta euskarazko ekimen erakargarriak sortu behar dira, batez ere ume eta gazteen aisialdiri begira. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuorde Patxi Batarririk zera esan zuen Administrazioa Euskaraz aldizkarian (2006ko urtarrila): "...elebidunen 2/3 hiriburuetan bizi badira, esaten ari gara bizi direla EAEko elebidun kopururik txikiena duten guneeetan; hortaz, normala da horrek erabilera eragina izatea. Zer egin behar dugu orduan? Elebidun horiei eremu formalek kanporako esparruetan kontsumorako aisialdi produktua eta produktu kulturalak eskaini behar zaizkie. Euskaraz ez ezik, bikainak eta kalitatekoak ere izan behar dute. Uste dut erabilera bultzatzeko politika egitean, etorkizuneko erronka nagusia hauxe dela: bikaintasuna eta kalitatea oinarri eta printzipiotzat hartzea". Etorkizuneari euskararekiko atxikimendu afektiboa handituko bada eta irakas-kuntzaren bitartez euskaldunak ugaritzen joango badira ere, euskararen ezagutza eta erabilera ez dute aurrera egingo euskararen inguruan produktu eta elkargune erakargarriak sortzen ez badira.

2. Gutxitutako hizkuntzak ikus-entzunezko teknologiekiko zabalik eta prestatuta egon beharko dira globalizazioarekin datorkigun hizkuntza homogeneotasunari behar bezala aurre egiteko eta etorkizuneari ere bizitzeko. Zentzu honetan, euskarari eta euskal kulturari behar bezalako indarra eta maila emateko, ezinbestekoa da euskal kulturaren inguruan dauden ikus-entzunezko komunikabideak sendotzea. Zehatzago esateko, Euskal kulturak teknologien eta ikus-entzunezko komunikabideei buruzko egitasmo edo proiektu orokorra eta propioa behar du. Zinema, telebista eta multimedia guztiak kontuan hartuko dituen interbentzio-plana bultzatu behar da. Plan hori orokorra eta euskal ikuspegia duena izan beharko da, eta ikus-entzunezkoen arloan parte hartzen duten guztiek jarraitu beharreko irizpideak zehaztuko ditu, bestela gure hizkuntzak arazo asko izango ditu mundu globalizatuan.

3. Ahantzi gabe euskararen arazo nagusia ez direla etorkinak bai-zik eta bizi duen diglosia egoera, ezinbestekoa da etorkinak euskara eta euskal kulturara erakartzea. Horretarako, euskal kulturak eta euskarak etorkinen hizkuntzak eta kulturak onartzen dituztela erakutsi behar dute<sup>11</sup>. Bestalde, ezinbestekoa da etorkinei euskal herriko hezkuntza ereduari buruzko informazioa ematea<sup>12</sup>. Horrekin batera, euskara ikasteko arazoak dituzten etorkinen seme-alabentzako aparteko klaseak antolatu behar dira eskoletan eta herrietan. Esperientziak erakusten du, gainera, errefortzu klase horiek modu ludikoan izan behar

---

<sup>11</sup> 2004. urtean, Sortzen-Ikasbatuaz-ek *Etorkinak Eskolan, aniztasunaren tratatarran eta kulturarteko hezkuntzan sakontzeko beste arrazoi bat* liburua kaleratu zuen. Ikaslearen jatorrizko hizkuntzari dagokionez zera ondorioztatzen da liburu honetan: eskolak kontuan hartu behar du ikasle etorkinen jatorrizko hizkuntzak ezin direla eskolako praktika sistematizatuan sartu, baina hauen presentzia ziurtatzea beharrezkoa dela ikasleen garapenerako. Era berean, 2003. urtean Ikasle Etorkinak Artatzeko Programa egin zuen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak. Bertan, ama-hizkuntza eta jatorrizko kultura ikasteko laguntzak ematea planteatzen zen (14 eta 15. orrialdeak). Besteak beste, honako ekintza bi planteatzen ziren: curriculumetan biztanle etorkinen jatorrizko hizkuntzak eta kulturak sartzeko ekimenak bultzatzea (IEPko 4.1 ekintza) eta gure gizartean eragin handiena duten atzerriko hizkuntzen (arabiera, txinera, etab.) ikasketa ikastetxeen hezkuntza eskaintzan sartzeko formulak garatzea (IEPko 1.15 ekintza). Programa honetan adierazten den bezala, “Ikasle etorkinak ikusi behar du baduela bere lekua taldean, estimatua dela, eta bere hizkuntza eta kultura balioesten direla” (6. orr.). Beste era batera esanda, “Bere jatorrizko hizkuntza eta kulturarenganako maitasuna indartzeko gunea izan behar du eskolak, harrera egiten dion gizartearen hizkuntza eta kultura apreziatzeko eta bereganatzeko lehen elkargunea izan behar duen bezalaxe” (Imaz eta Artetxe, 2004: 40).

<sup>12</sup> Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Unesco Etxeak elkarlanean antolatutako Hizkuntzak eta Immigrazioa jardunaldien barruan, etorkinen mahai inguruan parte hartu zuen etorkin batek zera esan zuen: «Gurasoei berdin die A edo D ereduan sartu beren umeak, eskolara eramatea baino ez dutelako nahi. Gurasoek uleratzeko moduan azaldu behar zaie zenbaterainoko garrantzia duen beren umeek euskara ikastea, eta orduan ziur naiz guzti-guztiek D eredia aukeratuko dutela». Alegia, behar bezalako informazioa ematen bazaie, etorkinek hezkuntza eredu euskaldunak aukeratuko dituzte.

direla; bestela, euskarari amorrua hartzeko arrisku handia dago (Aramaio, 2004:34).

Aipatzekoa da etorkinen inguruan aipatu ditugun estrategia hauek guztiak ezingo direla aurrera eraman behar bezalako baliabideak jar-tzen ez badira. 2004. urtean egin zen Hezkuntza Foroak esan zuen bezala, ikasle etorkinak hemengo hezkuntza sisteman barneratze-ko, eta bi hizkuntza ofizialak ikas ditzaten, baliabideak jarri behar dira. Are gehiago, nire ustez, etorkinak euskarara eta euskal kulturara era-kartzeko plan orokor bat behar da. Etorkinen bizi baldintzetara mol-datuko den plangintza sendo bat egiten bada, ziur nago etorkinak euskal kulturaren buru-belarri sartuko direla.

4. Azkenik, nire ustez, aipatu ditugun erabaki estrategiko hauek guztiak zein egitasmoak euskal tradizioari edota jatortasunari gehiago begiratuta bultzatu behar dira. Hau da, zerbait berria sortu behar da, baina zerbait gurea.

Joserra Gartzia, Andoni Egañak eta Kike Amonarrizek 2004an egin zuten ikerketa batean adierazten zuten bezala (Berrian, 2004-10-06), urteetan euskararen inguruan bultzatu diren hizkuntz politiken ardura bakarra euskarari masa kritiko bat ziurtatzea izan da, eta kalitatearen gaia alde batera utzi da. Hauen ustez, euskararen normaliza-zio prozesuan, ezinbestekoa da kalitateari garrantzi gehiago ematea, eta, horretarako, hizkuntzaren kalitatea kategorizatze-ko mailaketa bat proposatzen zuten.

Euskararen kalitateaz hitz egitean batzuek zuzentasunaz hitz egi-ten dute, alegia, Euskaltzaindiaren erabakien arabera euskara era-biltzeaz. Beste batzuek, kalitateko euskara jatortasunarekin lotzen dute; hau da, senaren eta tradizioaren arabera euskararekin. Euren iritziz, ordea, egokitasuna izan behar da kalitatearen adierazle, hau da, al-dian aldiko xederako egokia den euskara erabiltzea.

Nire ustez, zuzentasuna eta jatortasuna ahantzi gabe ezinbestekoa da tradizioari gehiago begiratzea; hain zuzen ere, gazteek hizkuntza-

ren berezko baliabide aberatsak gero eta gutxiago ezagutzen dituztelako. Are gehiago, iruditzen zait euskara sendotzeko eta erdararen interferentziak gutxitzeko, eskolak eta ikus-entzunezko komunikabideek ere gehiago begiratu beharko lioketela tradizioari.

## 5. Erabilitako bibliografia

- Amezaga, J. (2000-04-03): “Globalizazioa, komunikabideak eta identitatea”. *Egunkaria*.
- Aramaio, I. (2004): “Estatuz kanpoko etorkinak eta hizkuntza normalizazioa EAE-n: administrazio publikoaren eta herri mugimenduen ahaleginak”. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 52. zenbakia, Andoain, 25-36 orrialdeak.
- Arejita, A., Manterola, A. eta Oar-Arteta, S. (2007): *Euskararen Geografia Historikoa*. Labayru Ikastegia, Vitoria-Gasteiz.
- Arexolaleiba, J. (2004): “Europar eta munduan aniztasuna: etorkizuna=etorkintasuna?!”. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 52. zenbakia, Andoain, 95-111 orrialdeak.
- Castells, M. (1996-1997): *La era de la información*, 3 vols. Alianza, Madril.
- Crystal, D. (2000): *Language Death*. Cambridge University Press, Erresuma Batua.
- Gros i Lladós, Miguel (2007): *Recuperación del Euskara en Navarra*. Jagon Saila, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Décsy, G. (1986): *Statistical Report on the Languages of the World as of 1985*. Eurolingua, U.S.A..
- Dixon, R. M. W. (1997): *The rise and fall of languages*. Cambridge. Cambridge University Press.
- Elzo, J. (Zuzendaria) (2002): *Los valores de los vascos y navarros ante el nuevo milenio*. Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.

- Etzeberria, F. (2004): “Etorkinak eta hizkuntzak eskolan”. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 52. zenbakia, Andoain, 57-65 orrialdeak.
- Eusko Jaurlaritza (2003): *Ikasle Etorkinak Artatzeko Programa*.
- Eusko Jaurlaritza - Eustat (2005): III. Mapa Soziolinguistikoa. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz.
- Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Euskal Kultur Erakundea (2005): *Euskal Herriko Soziolinguistikako Inkesta 2001. Euskararen Jarraipena III*.
- Eusko Jaurlaritza: *Hizkuntza politika aurrera begira. Hizkuntza politikarako Sailburuordetzaren 2005-2009 egitasmoa*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.
- Hagège, C. (2000): Halte à la mort des langues. París: Éditions Odi-  
le Jacob [2002. No a la muerte de las lenguas. Barcelona: Paidós].
- Hale, K. (1992): “Endangered Languages” in *Language* 68-1 zenbakia, 1-48 orrialdeak.
- Hamelink, J.C. (1994): Trends in World Communication. On Disempowerment and Self-Empowerment. Southbound, Malaysia.
- Imaz, I. Eta Artetxe, M. (2004): “Etorkinen integrazioa ikastoletan”. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 52. zenbakia, Andoain, 39-55 orrialdeak.
- Juaristi, P. (2001): *Euskal Herria Globalizazioaren Aurrean*. Euskaltzaindia - BBK. Bilbo.
- Juaristi, P. (2001): “Euskal Herria Globalizazioaren Aurrean”. *EGUNKARIA*.
- Juaristi, P. (2002): “Euskararen kale erabilera Bizkaian”. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 43. zenbakia, Andoain, 85-95 orrialdeak.

- Juaristi, P. (2007): "Euskararen kale erabilera Bizkaian". *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 64. zenbakia, Andoain.
- Junyent, C. (1999): *La diversidad lingüística. Didáctica y recorrido de las lenguas del mundo*. Octaedro argitaletxea, Bartzelona.
- Junyent, C. (1993): *Las lenguas del mundo. Una introducción*. Octaedro, Bartzelona.
- Kraus, M. (1992): "The World's Languages in Crisis" in *Language* 68-1 zenbakia, 4-10 orrialdeak.
- Maffesoli, M. (1990): *El tiempo de las tribus*. Icaria, Bartzelona.
- Miége, B (2000): "Cultural production and cultural pluralism" in UNESCO: *World Communication and Information 1999-2000 Report*. Unesco Publishing, Frantzia.
- Septien Ortiz, J.M. (2006): *Mugarik Gabeko Eskola. Ikasle etorkinen irakaskuntza Araban*. Ararteko, Vitoria-Gasteiz.
- Virilio, P. (1997): *El ciber mundo, política de lo peor*. Ediciones Cátedra, Madril.

